



Ebazpena, 2015eko ekainaren 23koa, Hezkuntza sailburuordearena, Euskadiko Autonomia Erkidegoko eskola publikoetako Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleentzako ikasmaterialen Programari buruzkoa.

Heziberri 2020 Planak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsiak, 2020rako Europako hezkuntza eta prestakuntzari buruzko markoak ezarritako berrikuntza eta garapenerako ildo estrategikoak bateratzeko asmoari erantzuten dio, gure testuinguruak eta inguruneak planteatzen dizkigun hezkuntza-erronkak kontuan izanik. Plan horretan, «Hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoa» jasotzen da, hezkuntza-eredu pedagogikoaren lerro nagusiak jasotzen dituen proiektua, alegia. Konpetentzien araberako pedagogiaren ikuspegian oinarritutako proiektua da eta hauxe du helburu: eskuratutako ikaskuntzak transferitzea, bideratzea eta konbinatzea, egoera funtzional konplexuak konpontzeko.

Material didaktikoek koherentzia izan behar dute Hezkuntza eredu pedagogikoaren markoarekin eta ikasleen hasierako profilean definitutako oinarritzko konpetentziak lortzera bideratu behar dira.

Bestalde, Europar Batasuneko Kontseiluak, urte honetan izandako bileretan, sormena, berrikuntza eta konpetentzia digitala sustatzean indarra jartzen du haur eta lehen hezkuntzatik eta Estatu kideak premiatu ditu, tresna digitalek ikaskuntza prozesuetan duten eragina azter zezaten. Orobat, ikaskuntzaren pertsonalizazioa areagotzeko ekimenak bideratzera animatu zituen: hain zuzen, konpetentzia-sorta zabal bati egoki dakiokkeen ikaskuntza plazaratzera, hala gaitasun handiko ikasleak nola inguru zailletakoak eta behar bereziak dituztenak barne hartuko dituen.

Ondorioz, ikasle orok oinarritzko konpetentziak gara ditzaten, ezinbestekoa da helburu horiek betetzeko moduan orientatzea hezkuntza-administrazioaren ildo estrategiko guztiak. Ildo hauetako bik, *material didaktikoak sortzea eta erabiltzea* eta *Informazio eta Komunikazioaren Teknologiak irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuetan txertatzea*, elkarrekiko harreman estua izan behar dute, ikasleen aniztasunari egokitutako ikaskuntza pertsonalizatua areagotu duten planteamenduak sustatu nahi baditugu.

Hortaz, etorkizunean ezinbestean, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko material didaktikoen programak, gero eta material kurrikular digital gehiago sortzeko eta erabiltzeko balio behar du. Material kurrikular argitaratuekin batera erabili beharko dira material digitalak, gero eta eskola gehiagok *Sare Hezkuntza Gelan* proiektua aurkez dezaten.

Horretarako, egungo eskola materialak kudeatzeko programara arian-arian egokitze aukera eskainiko dugu, egokitzen eskola bakoitzaren ezaugarri, egoera eta hezkuntza mailarekiko errespetua gorde dezan. Helburua da

ikasleek Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumean ezarritako oinarrizko gaitasunak izatea, denbora jakin batean.

	2015-16	2016-17
LH1	Berriztatzea	Berriztatze digitala
LH2	Berriztatzea	Berriztatze digitala
LH3	Berrerabiltzea	Berrerabiltzea
LH4	Berrerabiltzea	Berrerabiltzea
LH5	Berriztatze digitala	Berriztatze digitala
LH6	Berriztatze digitala	Berriztatze digitala
DBH1	Berriztatze digitala	Berriztatze digitala
DBH2	Berriztatze digitala	Berriztatze digitala

1.- Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. maila irakasten duten eskola publikoek maila horietako ikasleei dagozkien material didaktiko guztiak berrituko dituzte 2015-2016 ikasturtean. Materialok Heziberri 2020 Planaren hezkuntza eredu pedagogikoaren arabera egokituko dira.

Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleen material didaktikoak ez dira berrerabilgarriak izango. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak **91€** emango dizkio ikastetxe bakoitzari, programan parte hartzen duen ikasle bakoitzeko. Bestalde, ikasle bakoitzak **27€** jarri beharko ditu, 2013ko uztailaren 10eko Aginduaren 9. artikulua dioenari jarraiki (2013ko uztailaren 31ko EHAA), hortxe ezarri baitira Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak emandako hezkuntza-zerbitzuen prezioak.

2.- 2015-2016 eta 2016-2017 ikasturteetan, Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. maila irakasten duten eskola publiko guztiak jarraituko dute aurreko ikasturteetan – Testu Liburuaren eta Material Kurrikularren Kudeaketa Solidarioaren Programaren barruan– eskuratu zuten material bera erabiltzen. Hala ere, materialok Heziberri 2020 Planaren hezkuntza eredu pedagogikoaren arabera egokituko dira.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak **13€** emango dizkio ikastetxe bakoitzari, programan parte hartzen duen ikasle bakoitzeko. Bestalde, ikasle bakoitzak **30€** jarri beharko ditu, aurrez aipatutako 2013ko uztailaren 10eko Aginduak ezarritakoaren arabera.

3.- Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. maila irakasten duten eskola publikoek programan parte hartzen duten maila horietako ikasleen material didaktiko guztiak berrituko dituzte 2015-2016 ikasturtean. Materialok Heziberri 2020 Planaren hezkuntza eredu pedagogikoaren arabera egokituko dira.

Euskarri digitaleko materialen erabilera sustatzeko, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak **53,5€** emango dizkio ikastetxe bakoitzari, 2015-16 ikasturtean Programan parte hartzen duen ikasle bakoitzeko; **53,5€**, berriz, 2016-17 ikasturtean parte hartzen duen ikasleko. Beraz, hurrengo ikasturteari



begira, materialak formatu digitalean eskuratzen dituzten eskolek bermatuta izango dute baimenak berritzeko behar den finantziazioa. Bestalde, Programan parte hartzen duen ikasle bakoitzak **31€** jarri beharko ditu, aurrez aipatutako 2013ko uztailaren 10eko Aginduak ezarritakoaren arabera.

4.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. maila irakasten duten eskola publikoek, 2015-2016 ikasturtean, Programan parte hartzen duen maila horietako ikasleei dagozkien material didaktiko guztiak berrituko dituzte. Materialok Heziberri 2020 Planaren hezkuntza eredu pedagogikoaren arabera egokituko dira.

Euskarri digitaleko materialen erabilera sustatzeko, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, **84,5€** emango dizkio eskola bakoitzari, 2015-16 ikasturtean Programan parte hartzen duen ikasle bakoitzeko, eta **84,5€**, berriz, 2016-17 ikasturtean parte hartzen duen ikasleko. Beraz, hurrengo ikasturteari begira, materialak formatu digitalean eskuratzen dituzten eskolek bermatuta izango dute baimenak berritzeko behar den finantziazioa. Bestalde, Programan parte hartzen duen ikasle bakoitzak **41 €** jarri beharko ditu, aurrez aipatutako 2013ko uztailaren 10eko Aginduak ezartzen duenaren arabera.

5.- 2015-2016 ikasturtean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila irakasten duten ikastetxe publiko guztiek izango dute aukera, nahiz programan parte hartzen duten maila horietako ikasleen material didaktikoak berritzeko, nahiz aurreko ikasturteetan Testu Liburuaren eta Material Kurrikularren Programa Solidarioan eskuratutako material didaktikoak erabiltzen jarraitzeko.

Euskarri digitaleko materialen erabilera sustatzeko, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, **46 €** emango dizkio eskola bakoitzari, 2015-16 ikasturtean Programan parte hartzen duen ikasle bakoitzeko; **139 €**, berriz, 2016-17 ikasturtean parte hartzen duen ikasleko. Beraz, hurrengo ikasturteari begira, materialak formatu digitalean eskuratzen dituzten eskolek bermatuta izango dute baimenak berritzeko behar den finantziazioa. 2016-2017 ikasturtean erabiltzen diren materialak Heziberri 2020 Planaren hezkuntza eredu pedagogikoaren arabera egokituko dira.

Bestalde, Programan parte hartzen duen ikasle bakoitzak **45€** jarri beharko ditu, aurrez aipatutako 2013ko uztailaren 10eko Aginduak ezartzen duenaren arabera.

6.-Ebazpen honen I. Eranskinean zehazten da 2015-2016 ikasturtean programa hori arautuko duen araudia.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko ekainaren 25a

Arantza Aurrekoetxea Bilbao
Hezkuntza Sailburuorde



I.ERANSKINA

2015-2016 IKASTURTERAKO ARAUDIA, EUSKADIKO AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESKOLA PUBLIKOETAKO LEHEN HEZKUNTZA ETA DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO 1. ETA 2. MAILETAKO IKASLEENTZAKO IKASMATERIALEN PROGRAMARI BURUZKOA

1.- LEGE OINARRIAK.

Programa Ebazpen honetan eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak Programa hau kudeatzeko eta garatzeko sortuko diren araudi orokorretan oinarrituko da.

Aplikagarria den gainontzeko araudia betetzeari utzi gabe, batez ere honako araudi hauek beteko dira:

196/1998 Dekretua, uztailaren 28koa, ikastetxe publikoen kudeaketa ekonomiko-finantzarioa arautzen duena, apirilaren 5eko 67/2005 Dekretuaren bidez aldatze dena.

Agindua, 2006ko urriaren 18koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuarena, ikastetxe publikoen sarreraren eta gastuen aurrekontu egoera banantzen dituen eta 196/1998 Dekretuaren eranskinak eguneratzen duena.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun efektiboari buruzkoa.

2.- PROGRAMAREN XEDEA ETA APLIKAZIO-EREMUA.

2015/2016 ikasturtean Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. maila ematen duten ikastetxe publikoetan ezarriko da.

Honako hauek dira Programan sartzen diren ikasmaterialak:

a) Ikasmaterial kurrikular argitaratua edota digitala, berrerabil daitekeena, ikasleek banan-banan erabiltzera bideratua eta, dagozkion metodologia-orientabideei eta ebaluazio-irizpideei jarraiki, indarreko hezkuntza-arautegiak kasuan kasuko maila eta irakasgairako ezarritako edukiak garatzen dituen.

b) Ikastetxeek beren kasa prestatutako material kurrikular argitaratua edota digitala, berrerabil daitekeena. Ikastetxeak bere kasa prestatutako materialtzat hartzen da ikastetxe bakoitzaren berezko orientabideen arabera sortutako material

kurrikularra, curriculumetan ezarritako edukiak garatzen laguntzen duena eta ikasleek banan-banan erabiltzeko sortua, egile-eskubideak babesteko printzipioaren pean.

c) Ikasleek ikasturtean zehar banan-banan erabiltzeko prestatutako material kurrikular argitaratua edota digitala, dagozkion metodologia-orientabideei eta ebaluazio-irizpideei jarraiki, curriculum-edukiak garatzen laguntzen duena.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak eskumena du ikastetxeek beren kasa prestatutako material kurrikularrak balioztatzeko eta, hala badagokio, argitaratzeko arauak emateko.

Ez dira programan barneratzen ikastetxeko ikasleen erabilera orokorreko material eta ekipo didaktikoak, nahitaezko hezkuntza-mailetako hainbat esparru eta irakasgaitako edukiekin lotuak, esaterako, hiztegiak, irakurketarako liburuak, informatika-programak, etab.

3. PROGRAMAREN KUDEAKETA

Testu liburuak berrerabiltzeko programa ikastetxeak berak kudeatuko du, «ikasmaterialen kudeaketa» kontzeptupean. Programa ikastetxearen urteko kudeaketa-planean barneratuko da.

Ikastetxeko **Ordezkaritza-Organo Gorenari** dagokio:

- 1.- Programaren antolaketarako eta funtzionamendurako ildoak onestea.
- 2.- Programaren funtzionamendurako arautegia onestea; ikastetxearen antolaketarako eta funtzionamendurako arautegiaren parte izatera pasako da.
- 3.- Programaren funtzionamendua ikuskatzea.
- 4.- Programaren kudeaketa ekonomikoa material kurrikular erabilergatiko ekarpena ordaintzeko modua onartuz, indarreko legerian ezartzen diren modalitateekin bat etorriz.
- 5.- Familiartekoei ikastetxeak maila bakoitzean erabiliko dituen material kurrikular argitaratu edota digitalen berri ematea.
- 6.- Agindu honen xede diren material kurrikular argitaratu edota digitalak eskuratzeko prozedura eta lekuak proposatzea.
- 7.- Programaz arduratuko den ikastetxeko batzordearen sorrera onartzea.
- 8.- Programa behar bezala gauzatzeko beharrezko diren bestelako funtzioak eta indarreko legeriak agintzen dizkionak.

Programaz arduratzen den **ikastetxeko batzordeak** honako kide hauek izango ditu, gutxienez:

- OOGko presidentea edo berak eskuordetzen duen beste edozein pertsona.
- Ikastetxeko idazkaria; batzordeko idazkari lanak beteko ditu.
- Ikasleen gurasoen bi ordezkari. Horietako batek OOGko kidea izan behar du eta organo horrek proposatuta aukeratu behar da; bestea, berriz, Ikasleen Gurasoen Elkarteak proposatuta aukeratu behar da.
- Lehen Hezkuntzako ziklo-koordinatzaileak edota Bigarren Hezkuntzakoak.

Hauek dira ikastetxeko batzordearen funtzioak:

a) OOGri bidaltzea Pedagogi Batzordeak prestatutako duen zerrenda, hau da, agindu honen xede diren material kurrikular argitaratu edota digitalek osatutakoa, ikastetxeak maila bakoitzean erabiliko dituenenak.

b) Agindu honen xede diren material kurrikular argitaratu edota digitalak eskuratzeko prozedura eta lekuak proposatzea. Guraso-elkarteak hala eskatzen badu, Batzordeak euren esku utz dezake aipatutako prozeduraz arduratzea.

c) Familiei emango zaizkien material kurrikular argitaratu edota digitalen zerrenda gainbegiratzea, II. eranskinean agertzen den ereduarekin bat etorriz.

d) Materialak erabiltzeagatik familiek egin ditzaketen ekarpenei buruz indarreko legerian ezarritakoa betetzen dela kontrolatzea.

e) Uko egite indibidualak jasotzea.

f) Programaren helburuak betetzea, ebaluatzea eta OOGri hobekuntzak proposatzea.

g) Programako materialak babesteko eta zaintzeko, erregistratzeko eta identifikatzeko eta urtero berrikusteko prozedura zehaztea.

h) Baldin eta material kurrikular argitaratu edota digitalak ez badira itzultzen edo ezin badira berrerabili ikasleak ez dituelako behar bezala zaindu, haiek ordaintzea eskatu zaio arduradunari. Hori egiteko prozedura ikastetxeko antolamendu- eta funtzionamendu-araudian jasoko da.

i) Proposatu OOGri, ikastetxeko antolamendu eta funtzionamendu araudian jasotzeko, zein neurri hartuko diren arduradunak eskatu zaion dirua ezarritako epean ordaintzen ez badu, hau da, materialak itzultzen ez badira edo, itzuli arren, ezin badira berrerabili, ikasleak ez dituelako behar bezala zaindu.

j) OOGk, indarreko legeria betez, programa garatzeko agintzen dion beste edozein funtzio.



4.- ERABILERA ETA ZAINZA.

1.- Ikastetxeek honako hauek jasoko dituzte beren antolaketarako eta funtzionamendurako arautegian: ikasleen esku utzitako material kurrikular argitaratu edota digitalak erabiltzeko eta zaintzeko arauak; arduradunari dirua eskatzeko prozedura, material horiek galtzen baditu, edo ezin badira berrerabili behar bezala zaindu ez dituelako edo hondatuta daudelako, bai eta hartuko diren neurriak arduradunak eskatu zaion dirua ezarritako epean ordaintzen ez duenean.

2.- Berrerabil daitezkeen material kurrikular argitaratu edota digitalak Hezkuntza Administrazioarenak izango dira, eta, ikasturtea amaitutakoan, ikastetxean bertan geratuko dira hurrengo ikasturtean berriz erabiltzeko, behin ongi zaindu direla eta hurrengo ikasturtean berriz erabiltzeko moduan daudela egiaztatuta; betiere ikastetxearen antolaketarako eta funtzionamendurako arautegiak ezartzen duena aintzakotzat hartuta.

5.- FINANTZIAZIOA 2015/2016 IKASTURTERAKO.

Finantzazio-eredua maileguan oinarrituko da.

Baliteke ikasturtean zehar ikasleren bat edo gehiago zuen ikastetxea utzi eta beste batera joatea. Orduan, jatorrizko ikastetxeak ikasle horrek egindako ekarpenaren ordainagiria emango dio beste ikastetxe horretan agertu dezan, eta, horrela, material berriak hartuko ditu bigarren ikastetxe horretan. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ikastetxeari ordainduko dio ikasle horri dagokion diru-kopurua.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ikasturte amaieran kontuan hartuko ditu Programan egon diren aldeak ikasle-kopuruan.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren ekarpena:

91 € Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasle bakoitzeko.

13 € Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasle bakoitzeko.

53,5 € Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasle bakoitzeko.

84,5 € Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. mailako ikasle bakoitzeko.

46 € Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasle bakoitzeko.

Ikasle bakoitzaren ekarpena:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak prestatzen dituen hezkuntza-zerbitzuen prezio publikoak finkatzeko den 2013ko uztailaren 10eko Aginduan agertzen dira ikasleek urtean ordaindu beharreko diru kopuruak. Sarrera hori egitea derrigorrezkoa da. Honako hauek dira:

27 € Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailetan matrikulatutako ikasle bakoitzeko.



30 € Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailetan matrikulatutako ikasle bakoitzeko.

31 € Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetan matrikulatutako ikasle bakoitzeko.

41 € Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. mailan matrikulatutako ikasle bakoitzeko.

45 € Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailan matrikulatutako ikasle bakoitzeko.

Ekarpen horiekin guztiekin materialak erosteko orduan, lehentasuna izango dute curriculum-en arabera derrigorrezkoak diren ikasgaietako material kurrikular argitaratu edota digitalak.

Aipatzen den erosketaren zenbateko osoa handiagoa balitz maila bakoitzean estimatutako gastuen zenbatekoa baino, ikastetxeak duen soberakinarekin osatuko da eta ez ikaslearen ekarpenaren igoerarekin. Ostera, ikastetxean saldirik geratzen bada, soberako dirua bertan geratuko da programako ikasmaterialak erosteko.

6.- FIDANTZAK DIRUTAN.

Finantza zuzendariaren 2011ko irailaren 23ko Ebazpenaren (urriaren 28ko EHAA, 205zb.) bidez, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailaren mendeko ikastetxe publikoetako zuzendariari eskuordetzean eman zaizkie Programa honen bermeekin zerikusia duten zenbait eskumen. Eskumenak honako hauek dira: gordetzea, kudeatzea ematea eta itzultzea bermeak.

7.- ESKURATZEKO PROZEDURA.

Ikastetxeek ikasleei ikasturtean zehar erabiliko diren material kurrikularrak argitaratuak edota digitalak emango dizkiete

Materialak aurrez adierazitako saltokietan edo hornitzaileetan jaso behar dira, ikastetxeko batzordeak ezarritako prozeduraren arabera.

Ikastetxeek II. eranskina euskarri gisa edukita, dagozkien fakturak jasoko dituzte saltokietan edo hornitzaileetan

Ikastetxeak urtero erosiko ditu hondatuta daudela-eta berrezarri behar diren liburuak, bai eta ikastetxeak berak materialak prestatzeko behar dituen materialak ere, halakorik prestatzen bada.

II.eranskinean agertzen den zenbateko osoak ezin izango du maila bakoitzerako ezarritako gehienekoa gainditu. Edozelan ere, Ikastetxeko Batzordeak zenbateko hori handitzea erabaki dezake, baldin eta testuliburuak eta curriculum-materialen loteak Hezkuntza Administrazioak emandako zenbatekoa gainditzeko bada, baina erabaki horrek, betiere, programaren enuntziatuarekin bat etorri behar du.



Ikastetxeen kontratazioa eta kudeaketa ekonomiko-finantzariorako autonomia arautzen dituzten arauetan ezarritako prozedurak errespetatu beharko ditu ikastetxeak.

8.- KUDEAKETA EKONOMIKOA.

Programaren kudeaketa ekonomikoa ikastetxearen kudeaketa ekonomiko-finantzarioan barneratuko da, Euskal Eskola Publikoa osatzen duten ikastetxeen kudeaketa ekonomiko-finantzariorako araubidea arautzen duen uztailaren 28ko 196/1998 Dekretuan (apirilaren 5eko 67/2005 Dekretuaren bidez aldatu zen) eta ikastetxeen diru-sarreraren eta gastuen aurrekontu-egoerak xehatzen dituen eta 196/1998 Dekretuaren eranskinen osaera eguneratzen duen 2006ko urriaren 18ko Aginduan ezarritakoari jarraiki.

Programako kontabilitate kudeaketa arloko edozein zalantza argitzeko, deitu lurralde-ordezkaritzako Aurrekontu-Zerbitzura.

9.- KONTROLA.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak Programaren funtzionamendu administratiboa eta ekonomikoa ikuskatuko ditu, gai bakoitzeko organo eskudunen bidez. Horrekin lotuta, Programak ondo funtzionatzeko eta aurrera egiteko beharrezkotzat jotzen duen informazioa eska diezaieke Sailak ikastetxeei. Horrez gain, Hezkuntza Ikuskaritzak bere eginkizunak gauzatuko ditu.

Hezkuntza Sailburuordetzak beharrezkotzat jotzen dituen jarraibideak emango ditu Agindu honetan ezarritakoa betetzeko.

Halaber, programa behar bezala garatzeko beharrezkotzat jotzen duen informazioa bidaltzeko eskatu ahal izango die ikastetxeei.

10.- UKO EGITEAK ETA BATERAEZINTASUNAK.

Ikasleren batek ez badu parte hartu nahi Programan, haren legezko ordezkariak ikastetxeari jakinarazi beharko dio. Horretarako, III. eranskina bete eta ikastetxean entregatu beharko du. Ikastetxeak **2015eko uztailaren 31a** baino lehen bidaliko ditu eranskin horiek honako helbide honetara:

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila
Ikastetxeen Zuzendaritza
Donostia - San Sebastian, 1 01010 – Vitoria-Gasteiz

Ikasturte batean Programan parte-hartzeak ez du derrigortzen urtebete baino gehiago egotera; hau da, ikasturtean ikasturteko erabakiko da Programari uko egin ala ez. Beraz, III. eranskin hura urtero bete behar da.



Programan parte hartzeari uko egin dion ikasleak aukera galtzen du ikasmaterialak erosteko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren ikasketa-laguntzetarako (beka) deialdian parte hartzeko, baina badu eskatzerik bestelako beka (jantokia,...).

Agindu honetan araututako programan parte hartzea bateragarria da programa horrek helburu dituen materialak eskuratzeko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila ez den beste edozein erakunde publikok edo pribatuk emandako edozein laguntza jasotzearekin, baldin eta laguntza horiek guztiak batuta ez badute gainditzen ikasleak ordaindu beharrekoa (ebazpenaren 6. atala).



II. ERANSKINA / ANEXO II

Ikasturtea / Curso: **2015/2016**

Ikastetxearen Kodea / Código Centro: _____

Ikastetxea / Centro: _____ / _____

I.F.K / C.I.F.: _____

Hekbidea / Dirección: _____ / _____

Udalerría / Localidad: _____

Posta kodea / Código Postal: _____ Lurraldea / Territorio: _____

Tel: _____ Fax(a): _____

Posta elektronikoa / Dirección de correo electrónico: _____ / _____

K / N°	Zikloa / Ciclo	Maila / Curso	Arloa / Área	Material izenburua / Título del material	Argitaletxea / Editorial	Ale-kopurua / Unidades	Prezioa / Precio
1							
2							
3							
4							
5							
5							
6							
7							
8							
9							
10							
11							
12							

_____ en _____ ko _____ (r)en _____
(e)

En _____, a _____ de _____ de _____

Izp./ Fdo. Zuzendaria / El/La Director/a



<p><u>Establezimenduaren datuak/Datos del establecimiento:</u></p> <p>Sozietatearen izena/Razón social: _____</p> <p>Helbidea/Domicilio: _____</p> <p>Herria/Localidad: _____</p> <p>Posta-Kodea/Código Postal: _____</p> <p>Lurraldea/Territorio: _____</p> <p>Tel./Tfno.: _____</p> <p>I.F.K./C.I.F.: _____</p> <p>Faktura _____ zb./Nº de Factura: _____</p> <p>(Izenpea eta zigilua/Firma y sello)</p>	<p><u>Recibí del representante del alumno o alumna / ikaslearen legezko ordezkariak egiaztatzen du:</u></p> <p>D./Dña. _____</p> <p>_____ jaunak/andreak</p> <p>N.A.N. _____ zenbakia/con D.N.I., _____, ikaslearen (2) _____ den horrek jaso dituela lehen aipatutako testuliburu eta curriculum-materialak / ha recibido los libros de texto y material curricular arriba relacionados.</p> <p>Jaso ditut/Recibí,</p> <p>(Izenpea/Firma)</p> <p>Data/Fecha: ____ / ____ / ____</p>
--	--

(2) Padre, Madre, Tutor/a o representante de la AMPA



III. ERANSKINA / ANEXO III

PROGRAMAN PARTE-HARTZEARI BANAKAKO UKO EGITEA / RENUNCIA INDIVIDUAL A LA PARTICIPACIÓN EN EL PROGRAMA

IKastetxea _____ /

Centro: _____

IKasturtea / Curso: **2015/2016**

Ikastetxearen kodea / Código Centro: _____

Udalerria / Localidad: _____ Lurraldea /
Territorio: _____

_____, Jauna / Andrea

NAN: _____ duena, aipatutako ikastetxeko Lehen
Hezkuntzako / Bigarren Hezkuntzako _____ mailan matrikulatutako
_____ Ikaslearen legezko
ordezkari naizen aldetik,

D./D^a _____
_____ con DNI: _____, como representante legal del
alumno/a _____

matriculado/a en este centro el en el curso _____ de Educación
Primaria / Educación Secundaria.

ADIERAZTEN DU / DECLARA

Ikasle horrek uko egiten diola Ikasmaterialen Programan 2015/2016 ikasturtean parte-hartzeari. Arrazoiak honako hauek dira: / que dicho/a alumno/a renuncia a participar, en el curso 2015/2016 en el Programa de materiales didácticos, por el siguiente motivo:

_____ (e)n _____ ko _____ (a) ren _____
(e) an
En _____, a _____ de _____ de _____

Izp.: / Fdo: _____